

ZB?

TXIKI

Barañaingo musikari gazteak

En esta ocasión nos hemos ido con la música a otra parte, concretamente a la Escuela Municipal "Luis Morondo" de Barañaín y hemos tenido la ocasión de hablar con Uxue, Mikel, Nabar y June, cuatros de los 700 alumnos y alumnas que tiene esta escuela, en la que imparten clase 19 docentes y en la que se pueden dar los primeros pasos hasta en 19 instrumentos.



BONBARDINOA

Nabar Bidaurre Fernandez

8 URTE / AMAIUR IKASTOLA

"Tuba jo nahi dut baina oso handia denez bonbardinoarekin hasi naiz. laz hasi nintzen eta ongi dago. Haizezko metalezko tresna bat hiru tekla dituen da hau. Nota batzuk ateratzeko indarrez egin behar da putz, baina orokorrean ez gehiegi. Etxean asko entzuten ditut anaiak jotzen. Batek tronboia jotzen du eta besteak tronpeta. Nagusia jada kontserbatorioan dago. Etorkizunean ez dakit zer egingo dudana. Gustatuko litzaidake kalean jotzea, festetan. Ikastolan ere musika egiten dugu baina hor bakarrik jotzen dugu txirula. Urtebetetzeetan, batez ere amari, jotzen diogu kanta bat edo beste."



KLARINETEA

Mikel Agirre Urrutia

9 URTE / ALAITZ IKASTETXEA

"Hau nire hirugarren urtea da. Hasieran utzi ziguten klase askotara joaten tresna desberdinak ezagutzeko eta nik klarineta aukeratu nuen polita irudituz zitzaidalako. Bestela perkusioa ere gustatzen zait. Klarineta jotzean zailena da haizea ongi botatzea. Bota behar da indarrez baina posizio egokian txistu arrarorik ez ateratzeko. Klarineta egurrezkoa da eta giltza metalezkoak ditu. Zaila dirudi baina ez da horren konplikatu. Niri gustatuko litzaidake talde batean musika modernoa jotzea. Niri adibidez Morat gustatzen zait. Etxean musikari asko gaude: osabak gitarra, txistua, perkusioa eta gauza gehiago jotzen ditu, izebak oboea eta pianoa eta aitak eta bere familia guztiak txistua. Nire aitarekin jotzen dut etxean. Klarineta eta txistua, biak si bemolean daudenez, duo asko eta canonak egiten ditugu."

ZEHARKAKO TXIRULA

June Valencia Buñuales

9 URTE / ALAITZ IKASTETXEA

"Duela hiru urte hasi nintzen. Hautatu nuen nire amak jotzen duelako eta niri ere asko gustatzen zaidalako. Batzuetan berarekin jotzen dut. Nahiko erraza da. Denborarekin ikasten duzu dena ongi egiten. Etxean astean behin edo bitan jotzen dut. Nire ahizpak biola eta klarineta jotzen ikasi zuten. Entzuteko musika mota asko gustatzen zait. Ez dakit nola deitzen diren, baina gustura aditzen ditut. Telebistako "Goazen" saioko kantak ere asko gustatzen zaizkit. laz kontzertu handi batera joan nintzen orkestra baten emanaldira eta asko gustatu zitzaidan. Niri ere gustatuko litzaidake handitan halako orkestra batean jotzea, baina orain niretzat amatxorekin jotzea da politena."



BIOLINA

Uxue Etxebarria Viguria

10 URTE / SAN FERMIN IKASTOLA

"Duela lau urte hasi nintzen biolina jotzen. Sostenidoak eta bemolak jotzea da zailena. Etxean batzuetan, Eguberrietan adibidez, eskatzen didate familiaren aurrean jotzea. Nik astean ordu erdi bat jotzen dut etxean eta hemen eskolan bi ordu. Honetaz gain lengoia musikala klasea dut eta ordu eta erdiko saioa orkestrarekin. Handitan ez dakit musikaria izan nahi dudana. Oso zaila ikusten dut. Biolina ez balitz pianoa joko nuke, oso polita iruditzen zaidalako. Ongi jotzeko sekretua da arkuari ongi eustea."



Heda
COMUNICACIONES.L

Concejo de Ustárroz, 9
31016 Pamplona
Tel: 948 13 67 66
e-mail: info@heda.es
web: www.heda.es

Lo hacemos fácil
Lo hacemos bien



Web, Redes Sociales y multimedia • Revistas • Boletines municipales • Folletos, mapas, agendas • Logotipos • Campañas • Exposiciones, carteles, ploters • Guías, catálogos • Libros, memorias y material didáctico...